

## Zorionak Luisa Etxenikeri eta Elena Odriozolari

**Denis Itxasok**, Donostiako Udaleko Kultura zinegotziak, lerro hauen bidez publikoki zoriondu nahi ditu **Luisa Etxenike** idazlea eta **Elena Odriozola** irudigilea, Euskadi Literatur Sarien irabazi berritan. Izan ere, Gaztelaniazko Euskadi Saria lortu du Luisak eta Elenak, berriz, lehen aldiz banatu den Ilustrazio Saria.

Etxenikeren *El ángulo ciego* (Bruguera) eleberria da saritutakoa. Luisak ibilbide luzea du idazle gisa eta Donostia Kulturaren zein Udal honen ohiko laguntzailea da. 1987tik koordinatzen ditu **Emakume Idazleen Topaketak** (hain zuzen ere, hurrengo edizioa hilaren 18 eta 19an ospatuko da Liburutegi Nagusiko Ekitaldi Aretoan). Hasiera-hasieratik da Literaktum jaialdiaren aholkulari, literatur sorkuntzari buruzko ikastaroak ematen ditu Okendo Kultur Etxean, baita emakumeen solasaldi bat dinamizatu ere bertan.

Odriozolari lortutako saria *Aplastamiento de las gotas* liburu-albumaren ilustrazioagatik iritsi zaio. Julio Cortazarren titulu hau Laberinto de las Artes argitaletxeak publikatu du. Publizitatean hasi zen lanean Elena Odriozola (Donostia, 1967) eta mundu horretan pasa zituen zortzi urte. Aldi berean, liburuak ilustratzen hasi zen, baina 1998 urtean publizitatea utzi eta bere lana marraztea, ilustratzea zela erabaki zuen. Testuliburu asko, kartelak, programak eta era askotako ilustrazioak egiteaz gain, hainbat liburu irudiz bete ditu (100 inguru). 2006ko irailean bere lehen erakusketa, *Minimo*, paratu zuen Ernest Lluch Kultur Etxean.

Donostiako Kultura zinegotziak "Hitzen Hiria" aldarrikatu nahi du, Donostia 2016ko kultur hiriburu bihurtzeko hautagaitzaren ardatzetako bat, bi egile donostiar hauen ekarpenak islatzen duena.

## Felicidades a Luisa Etxenike y a Elena Odriozola

**Denis Itxaso**, concejal de Cultura del Ayuntamiento de San Sebastián, desea felicitar por medio de estas líneas a la escritora **Luisa Etxenike** y a la ilustradora **Elena Odriozola** hoy que se ha hecho pública la concesión de los Premios Euskadi. Luisa ha ganado el Premio Euskadi 2009 de Literatura en castellano y Elena el Premio Euskadi 2009 de Ilustración.

Etxenike ha ganado el premio con su novela *El ángulo ciego* editado por Bruguera. Colaboradora habitual de Donostia Kultura y del Ayuntamiento, es desde 1987 coordinadora de los **Encuentros Internacionales de Escritoras**, que se celebran anualmente en la capital donostiarra de la ciudad (precisamente, los próximos días 18 y 19 tendrá lugar la XXII edición de estos encuentros en la antigua

Biblioteca Municipal de la Plaza de la Constitución). Es también asesora del Festival Literaktum e imparte cursos de creación literaria y dinamiza una tertulia para mujeres en el Centro Cultural Okendo.

Odriozola, por su parte, ha obtenido el galardón por su ilustración del libro-album *Aplastamiento de las gotas*, título de Julio Cortázar editado por Laberinto de las Artes. Elena Odriozola (Donostia, 1967) comenzó trabajando en el mundo de la publicidad, donde estuvo ocho años, al mismo tiempo que ilustraba libros. Pero cuando en 1998 dejó su trabajo en una agencia publicitaria, tomó la decisión de dedicarse al dibujo. Además de libros de texto, carteles y programas, ha ilustrado casi un centenar de títulos. En septiembre de 2006, realizó su primera exposición, *Minimo*, en el Centro Cultural Ernest Lluch.

El concejal de Cultura de San Sebastián ha reivindicado, por último, "La Ciudad de las Palabras" como uno de los ejes centrales de la capitalidad cultural de Donostia 2016, que se ve reflejada en la aportación de estas dos autoras donostiarras.